


9 Soles

CICLO DE ACCIONES ARTÍSTICAS
EKINTZA ARTISTIKOEN ZIKLOA

9 Eguzki



MIRADOR DEL MUSEO DE NAVARRA
NAFARROAKO MUSEOAREN BEHATOKIA

Uztailaren 21etik irailaren 15a bitartean, Nafarroako Museoaren behatokian 9 Eguzki berri arituko dira. Ekintza artistikoak atari zabalean egingen dira, argia apaldu eta eguna gauaren baitan kulunkatzen denean.

Lekua berezia da, historiaz eta istorioz betea. Nafarroako Museoak Nafarroako lurretatik heldu diren objektuen eta artelanen bildumak batzen ditu, historiaurretik gaur egun artekoak. Hemen gordetzen da bertako ondarerik baliotsuena. Behatokian, ordea, eraikinari bizkar emanik, begirada paisaiarantz luzatzen da. Hiria aditzen da eta, haratago, basoak.

Esku-hartze artistikoen ziklo hau barnealdearen eta kanpoaldearen arteko mugan kokatzen da, eta bi galdera hauek ditu ardatz: zer dauka Museoak? eta, zer ez dauka? Hala, programan parte hartzen duten artistetako batzuk Museoaren edukiarekin hizketan arituko dira beren proposamenen bidez. Beste artista batzuek, aldiz, kontrako bidea aukeratu dute, eta bere bildumetan ez daukan horixe ekarriko diote Museoari.

Behatokian, eguzkiaren argi leunaren azpian, ikusleekin partekatuko dituzte beren sorkuntzak, indar zirragarritz blai daudela oraindik. Nafarroako Museoan ikusgai dauden bilduma guztietatik, 9 eguzkiarena dugu emozionalena eta gorpuztasun handienekoa. Oraindik idatzi ez den artearen historiaren parte da.

Alexandra Baurès komisarioa



Uztailak 21 **ISABEL VILLANUEVA**
Apertura, biola

Isabel Villanueva bakarlariak RNEko "El Ojo Crítico" Musika Klasikoaren 2015eko Saria jaso du, baita Madrilgo Erkidegoaren Musika Klasikoaren Kultura Saria ere, 2019an. Artista biolaren, bere musika-tresnaren, defendatzaile sutsua da. Jatorrian, igurtzitako hari-instrumentu guztiak biolak ziren. Hala, ez da harritzekoa neska gazte baten xehetasuna agertzea braccio-biola bat jotzen museoan dagoen horma-pintura gotikoan, hots, Juan Oliverrek Iruñeko Katedralerako 1335ean eginiko freskoan. 9 eguzkien zikloa irekitzeko, Isabel Villanuevak J.S Bachen pieza bat joko du, baita gaur egungo bi konpositoreren lanak ere: György Kurtág eta Dobrinka Tabakova musikagileenak.



Uztailak 28 **MIREN DOIZ & CARTUCHO**
Des-velar, pintura-ekintza

Miren Doizek, txikitan Museora eginiko bisitaldiez oroitzean, gogoan du zer-nolako lilura sortzen zion Francisco Goyak erretrataturiko San Adriango markesaren galtza belusatuen ehundurak. Artistak bi beka jaso ditu, Pollock-Krasner Fundazioarena, 2014-2015ean, eta Espainiako Errege Akademia Erroman erakundearena 2018an, eta behatokiko esku-hartzean collage handi bat sortuko du mihise horren zati bat eta museoko bildumako garai ezberdinetako zenbait obren beste xehetasun batzuk baliatuz. Esku-hartze hori in situ egingen du eta haren bidez harremanetan jarriko ditu artearen historiako zenbait geruza eta behatokiaren arkitektura. Uztailaren 28an, Cartuchoren soinuaz lagundurik jarriko du agerian horma-irudia.



Abuztuak 4 **DPVILLANUEVA**
posibles - staying alive, ekintza koreografikoa

Lynn Margulis biologoak "arrotzen intimitatea" erabiltzen du eboluzioan zehar espezieen arteko elkarreragina eta lankidetzak deskribatzeko. Besteak beste, erreferentzia hori baliatzen du DP Villanueva dantzari eta koreografoak, eta handik abiatzen da naturarekiko harreman horizontal baten bidez gorputzean barneratzen den sorkuntza bat garatzeko. Gainera, prozesu horretan, kontatzen du zer-nolakoa izan zen Urraulbeitin (Nafarroa) eta Lasieran (Araba) landa-eremuarekin bizi izan zuen barne-barneko esperientzia. Behatokian aurkeztuko duen erakusketa Iruñeko Udalaren 2020ko Arte Sorkuntzako Proiektuak Sustatzeko IV. Lehiaketan saritutako proiektu baten parte da, Dantzan Bilaka 2021ean garaturikoa.





Abuztuak 11 **IOSU ZAPATA & CLAUDIA CASTAÑO**
Malaiierba, herri-sustraidun musika

Iosu Zapata artista plastikoak urteak daramatza belar txarrekiko interesa agertzen, organismo erresilienteak diren aldetik. Gilles Clément paisajistak "Hirugarren paisaia" deitzen duen hori osatzen dute, eta "makinak iritsi ezin diren lekuetan" daude. Hori dela eta, Malaiierba izena aukeratu du behatokian Claudia Castañorekin batera abiaraziko duen musika-proiekturako. Han, ikusizko instalazio soinudun bat egingen du: basalandareak izanen dira protagonistak, emanaldiaren eszenografia osatuko baitute. Zapataren gitarrarekin batera, Claudia Castaño arituko da, Nafarroako 2020ko Topaketa Gazteen irabazlea, eta folkloreak eta musika urbanoaren arteko mugan dauden gaiak joko dituzte.



Abuztuak 18 **DINAMO DANZA**
Orígenes, dantza garaikidea

Euskal mitologian, Mari lur azpian bizi den jainkosa da. Lurreko indarrak menderatzen dituzenez, Amaluraren ikurtzat hartzen da. Nafarroako herri batzuetan, kristautasunaren aurreko garaietan, Mari gurtzeko ohitura zegoen. Marirendako oparirik hoberena ahari bat eramatea zen: kondaira anitzetan ageri da haren animalia kutuna zela. Harriak ere eramaten zitzaizkion haitzuloetara, edo txanponak uzten eskaintzatarako. Orígenes dantza garaikideko obra bat da, eta mito hori hartzen du oinarri gizakiak naturarekin duen harremanari heltzeko. Dantzariak: Carmen Larraz (Mari) eta Martín Los Arcos (Maju, Mariren senarra).



Abuztuak 25 **ESTITXU ARROYO**
Lo que es visible y lo que está oculto, esku-hartze performatikoa

Estitxu Arroyo diziplina arteko sortzaile eta performerrak Nafarroako Museoan barna ibiltzeko asmoa du hura gorputz bat balitz bezala. Jendea ibiltzen den leku argizatuei erreparatu die, eta orobat ezkutuan dauden txokoei, erakundeen erraiei. Haren alderdi sakratuaz jakin nahi izan du, kultur ondarrera sartzeko nolabaiteko zuhurtzia beharko balitz bezala. Era berean, interesa piztu zaio eraikinaren iraganaz, udal ospitale hartaz, zaintzak behar zituzten gorputzen eta heriotzaren bizitokiaz. Eraikinera eta haren bildumetara halaxe hurbilduta, gogoetan aritu da gorputzari eta oroimenari buruz, eta hausnarketa hori eramanen du behatokira, esku-hartze performatiko eta poetiko batean.





Irailak 1 **ALBERTO ODÉRIZ**

Se buscan voluntarios para mover montañas, eskultura-ekintza

Iruñetik 11 km-ra, proiektu erraldoi bat gauzatu nahi da parke fotovoltaikoak paratzeko Erreniega mendiaren magalean, eta inguruko herrietako bizilagunak proiektuaren aurka batu dira, eta tokiko energia-komunitatea sortu. Horrela eratu da Salba dezagun Erreniega 4.0 plataforma, mendiaren natur eta kultur ondarea defendatzeko. Alberto Odériz eskultoreak hartu du egitasmoaren alderdi sinbolikoaren ardura. Hauxe da behatokian burutuko duen ekintza eskultorikoaren asmoa: "Mendia eramanen dugu Nafarroako Museora. Hango laboreak eramanen ditugu, hango txoriak, oroitzapenak, usainak... Hala, agian, hura ez dagoenean, ohartuko gara zer geneukan, hots, zer galdu dezakegun".



Irailak 8 **TXARO FONTALBA**

Sueñario, ekintza plastikoa

Maiatzaren 27an, ilargi beteko gaua zelarrik, Txaro Fontalba eskultoreak Nafarroako Museoa igaro zuen gaua. Ekintza hori Sueñario proiektuaren parte izan zen, zeinaren bidez aldarrikatu nahi baitu ametsak "ezagutza-eremu direla, bizitzaren zatia direla, bizitzaren itzalpeko zatia, bizi izandako denbora deszifratzeko eta hartara hurbiltzeko parada ematen diguna". Era berean, artistak ametsaren alderdi soziala ere balioetsi nahi du: iratzarri eta amesturikoa kontatzea. Museoa, loaren erritu intimoa gauzatu zuen zaintza-kameren aitzinean. Obra jakin batzuen ondoan etzan zen, isilik, eta haiekin egin zuen lo. Mirari Echávarriren laguntzarekin grabaturiko bideoa aurkeztuko du behatokian, eta gorputz- eta ahots-ekintza bat eskainiko du.



Irailak 15 **MENDIA ECHEVERRIA & ENSEMBLE E7.2**

Muséum, Argazkia eta musika esperimentalak

Iruñetik 875 km-ra, Parisen, Historia Naturaleko Museo Nazionale dago (Muséum), Landareen Lorategi historikoan. Erakundea duela 400 urte baino gehiago sortu zen, eta dozenaka milioi espezie biltzen ditu lorategiak, hainbat galeria eta zoologiko bat dauzkan eremu zabal batean. Mendia Echeverriak ondare eskerga horren argazki-inbentarioa egin du, museoaren transmisio-metodoez jakin-nahirik. Mendia Echeverriaren argazkiak behatokian proiektatuko dira eta, ilunabarrean, haiekin hartu-emanen, ahanzturari eta hutsari buruzko soinu-ibilbide bat eskainiko du Ensemble E7.2 taldeak. Parte-hartzaileak: Pilar Fontalba (oboea), Salva Tarazona (perkusia), Carolina Cerezo eta Juanjo Eslava (konposizioa) eta Pablo Ramos.



- ORDUTEGIAK:** Behatokia eta ostatua, 19:00etatik 21:30era.
Ekintza artistikoa, 20:00etatik 21:00etara,
gutxi gorabehera.
- EDUKIERA:** 70 pertsona behatokian eta
50 atondoan (euria eginez gero).
- SARREREN SALMENTA:** Nafarroako Museoko leihatilan uztailaren 16ko
13: 00etatik aurrera.
- BANAKAKO SARRERA:** 10 € (kontsumitzeko eskubidearekin).
9 eguzki ziklo-bonoa: 90 €.
Eskudirutan bakarrik.
Gehienez bi sarrera pertsonako eta saio
bakoitzeko.

Taberna/koktel zerbitzua: **BAR 9 SOLES BY CARLOS RODRÍGUEZ**
Koordinatzaile teknikoa eta irudia: **ANA GARCÍA**
Soinua: **IOSU MARTI**
Bideoak: **THE VISIBLE MAN**



Nafarroako museoa. C/ Santo Domingo, 47. Iruña.
Tel. **848 42 64 92 / 848 42 89 26.** museo@navarra.es